

LAZ-



01.

01.
Herriko sarrera-irteeretan segurtasun kamerak
Cámaras de seguridad en las entradas y salidas de Lazkao

02.
Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren eraberritzea
Reforma del Polideportivo Municipal Joxemiel Barandiaran

RAO



02.

«



03.

ABI-



04.

03.
Zubizkitzako urbanizazioa
Urbanización de Zubizkitza

04.
Bizikleta zirkuitu naturala Harizti Handin
Circuito ciclista natural en Harizti Handi

05.
Bizikleta aparkalekuak estaltzea
Cubrición de aparcamientos de bicicletas



06.

06.
Argiteria publikoan hobekuntzak
Mejoras en el alumbrado público



05.



09.



10.



07.

07.
Jose Lasa eta Magdalena arteko bidegorriaren egokitzapena
Adecuación del bidegorri entre José Lasa y Magdalena



08.

08.
Zabuak Harizti Handin
Columpios en Harizti Handi

10.
Etxebizitza gehiago
Más vivienda

09.
Uholdeak ekiditeko aktuzioak
Actuaciones para evitar inundaciones

AN



LAZKAOKO UDALA

Kepa Zubiarraín

ALKATEA

Datozen bi urteetan ikusiko da azken urteetako lana: Lazkao hizki handiz eta harro adierazteko herri-proiektuek ikusiko dute argia.

Legealdi erdian kokatu, Legealdiko Plangintza-ren aurrerapena zein puntutan dago?

Legealdiko ekuatorean gauden honetan, esan dezakegu oso erritmo onean ari garela lanean. Gure Legealdi Planean jasotako ekintzen %80a dagoeneko martxan dago, batzuk amaituta eta beste batzuk burutze-fase desberdinetan. Gainerako %20aren inguruan ere lan teknikoa eta planifikazioa oso aurreratuta daude, eta datozen hilabeteetan gauzatuko dira.

Plan hau ez da kasualitatez osatu, baizik eta hausnarketa sakon baten ondorioa da: herritarren beharrak entzun, lehentasunak argitu eta epe ertain eta luzeko ikuspegia-rekin egina. Guretzat ezinbestekoa zen plan estrategiko bat edukitzea, eguneroko kudeaketaz harago doana eta Lazkaoren etorkizuna begi-bistan duena. Ilusioz, konpromisoa eta mimos landu genuen, eta gaur egun, plan horren norabidea eta eraginkortasuna baieztatzen ari gara.

Herritarren ongizatea, jasangarritasuna eta zerbitzu publikoen kalitatea izan dira gidari. Lanean jarraituko dugu, zintzotasunez eta erantzukizunez, hasitako bideari jarraipena emateko.

La Fase 5 de la reforma del Polideportivo Municipal Joxemiel Barandiaran está prácticamente finalizada.

Esta quinta fase ha supuesto un gran salto cualitativo, con la incorporación de una nueva piscina, nuevos vestuarios completamente renovados y una nueva sauna. Todo ello pensado para mejorar la comodidad y el bienestar de las personas usuarias, y para responder a las necesidades actuales del deporte y la salud en Lazkao.

Se trata de un proyecto muy importante y necesario, que moderniza una infraestructura clave para el municipio y que refuerza nuestra apuesta por el deporte, la vida activa y el bienestar colectivo.

Uholdeak ekiditeko aktuasio ugari egin dituzue eta izan duzue euren eraginkortasuna neurtzeko aukera.

Azken urtean euri jasen bi atal oso gogor bizi izan ditugu. Lazkaotar guztiei eskerrak eman nahi dizkiet aipaturiko une zail hauetan erakutsitako erantzukizun eta lankidetzarengatik. Egoera latzak izan ziren, baina elkarrekin aritu ginen.

Azken urteotan hainbat aktuazio burutu ditugu: Mike-lar, Santa Magdalena, Esparru, Zubierreka eta San Prudentzion egiten ari diren lanekin, baita Lazkaomenditik datorren uraren bideraketa hobetzeko esku-hartzeekin. Maizpide euskaltegiko eta Lazkao Txiki plazako arazoak ere kontuan hartu ditugu, eta orain baditugu emaitzak.

Enpaundi eta Areso-Antzalde eremuetan dugu fokua orain eta bertan azken euri jasa bortitzek sortutako kalteak ikusirik, etorkizunean arazoak ekiditeko neurriak hartuko dira. Dagoeneko proiektua lantzen ari gara Udalean ingeneritza talde baten eskutik.

Las mejoras de urbanización de Zubizkitza ya han finalizado

Las obras de reurbanización del entorno del Gerontológico Txindoki y el barrio de Zubizkitza han concluido con éxito, cumpliendo los objetivos marcados: mejorar infraestructuras, aumentar la accesibilidad y modernizar servicios esenciales como el alumbrado y el abastecimiento de agua.

El proyecto se ha desarrollado en tres fases entre septiembre de 2023 y abril de 2025, con una inversión total de 782.475,50 euros. Se ha renovado el pavimento, sustituido las redes de abastecimiento de agua potable y modernizado el alumbrado con luminarias de bajo consumo, lo que incrementa la seguridad y reduce el consumo energético.

Además, se ha trabajado para que el barrio sea plenamente accesible y esté adaptado a las necesidades de las y los usuarios de Txindoki Gerontologikoa, así como de la ciudadanía lazkaotarra. Creo que el resultado es muy satisfactorio.

Argiteria publikoa hobetzen jarraitzen duzue. Zein dira hurrengo pausuak?

Azken urteotan herriko kale askotan argiteria publikoa berritu da LED teknologiaren bidez, eta gaur egun ehuneko handi batean gure argiteria guztiz jasangarria dela esan genezake. Bide horretan jarraituko dugu.

Hurrengo aktuazioa Kanpandegiko rotondatik Ataun arteko muga egingo da: bertan LED argiteria ezarriko da, energia-eraginkortasuna areagotzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko. Helburua argitasun hobea eskaintzea da, energia kontsumoa gutxituz eta herritarren segurtasuna indartuz.

Los presupuestos participativos también han tenido una buena respuesta y han podido sacar varios proyectos adelante.

El año pasado pusimos en marcha por primera vez los presupuestos participativos y la iniciativa tuvo muy buena respuesta.

Fruto de ese proceso, ya se han ejecutado cuatro de los cinco proyectos seleccionados por la ciudadanía y el quinto está en proceso: el circuito natural de bicicletas en Harizti Handi está en fase de redacción del proyecto para su posterior lanzamiento.

Asimismo, ya se han instalado nuevos columpios en Harizti, se ha acondicionado el bidegorri entre José Lasa y Santa Magdalena, se ha cubierto el aparcamiento de bicicletas en la plaza, y se han instalado cámaras de seguridad en las entradas y salidas del municipio, así como las tres señales luminosas de paso de peatones en el cruce junto al puente del ayuntamiento.

La experiencia ha sido muy positiva, y desde el Ayuntamiento agradecemos a la ciudadanía su implicación. Esto refuerza nuestro compromiso con una gobernanza participativa, cercana y útil.

Mugikortasuna lan-lerro garrantzitsu bat dela agerikoa da.

Mugikortasuna funtsezkoa da Lazkaoren egunerokoan eta etorkizuneko garapenean, herriaren orografiak berak ere laguntzen digu horretan. Azken urteetan, oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko hainbat esku-hartze egin ditugu, bidegorriak egokituz eta bizikleta aparkalekuak jarri.

Helburua argia da: herri konektatuagoa, seguruagoa eta jasangarriagoa izatea, motordun ibilgailuen erabilera murriztu eta garraio aktiboa sustatuz, izan bizikletaz, oinez edota bestelako beste ibilgailuekin. Etorkizunera begira, norabide horretan jarraituko dugu, herritarren beharrak erdigunean jarrita.

Van a cubrir el parque infantil de Areso, ¿no?

Ha sido la propuesta y petición más demandada por parte de los y las lazkaotarras. El proyecto ya está redactado y acabamos de licitar las obras. Si todo va según lo previsto, esperamos poder iniciar los trabajos este otoño. Será una mejora importante para que las niñas y niños puedan disfrutar del parque durante todo el año.

Urbanizazio lan ugari ere jomugan dituzue, Elo-segi, Ibabe-Hiribarren, Zubizkitza, Iturrialdea, Mikelar...

Hala da, azken urteetan pauso sendoak eman dira auzoetako azpiegiturak hobetzeko. Horren adibide garbiak dira, Hiribarren eta Zubizkitza auzoetako lanak eta orain Iturrialdea eta Mikelarren jarriko dugu fokua, urbanizazio berritzeak burutuko direlarik.

Aurrez, Elo-segi, Ibabe Hiribarren eta beste hainbat eremutan ere esku hartu da, pixkanaka eta modu planifikatuan. Helburua argia da: auzo guztietan, inor atzean utzi gabe,

irisgarritasun, segurtasun eta bizi-kalitate baldintzak etengabe hobetzen jarraitzea. Lana handia da, baina herritarren beharretara egokituta, pausoz pauso ari gara gauzatzen.

¿La obra del nuevo ambulatorio va a comenzar este año?

Efectivamente. La redacción del proyecto está concluida y aprobada por parte del departamento de Salud del Gobierno Vasco. Mientras se realicen los trabajos de ejecución de la nueva edificación, el servicio sanitario se prestará de manera provisional en los módulos prefabricados habilitados para tal fin junto a la Ikastola San Benito. Se prevé el inicio de la obra para finales de este mismo año.

La remodelación arrancará en dos fases: una primera consistente en derribar el edificio actual y construir uno nuevo de dos plantas con unos 800 m², y una segunda

“La obra del nuevo ambulatorio comenzaría este año”

fase para ampliar hasta un total de 1.700 m². Durante las obras, se garantizarán los servicios sanitarios en el parking para no interrumpir la atención médica. La obra tiene una duración estimada de 18 meses. Una prioridad con las y los lazkaotarras.

Lazkaomendiko oinezkoentsako bidearen proiektuaz asko hitz egin da.

2 kilometro inguruko oinezko bidea izango da, Lazkao eta Lazkaomendi arteko lotura segurua bermatuko duena. Proiektua dagoeneko idatzita daukagu eta faseka gauzatuko da.

Proiektua gauatzeko lurrak eskuratzeko lanean jardun gara jabeekin elkarlanean eta urrian erosketak gauzatzea da aurreikuspena. Lanak 2026an hasia da gure asmoa. Herritarren eskaera historikoa da eta orain dugu aukera errealtate bihurtzeko.

El acondicionamiento de la zona de Meandro ya está en marcha.

Hemos iniciado las obras de acondicionamiento del Meandro para habilitar un camino peatonal mejorando la conexión y accesibilidad de este entorno natural. El objetivo es poner en valor este espacio verde tan apreciado por los vecinos y vecinas.

La actuación eliminará la gran barrera arquitectónica que suponen las escaleras bajo la GI-2120 y dotará a la campa con un recorrido cómodo e inclusivo para la práctica del deporte y el ocio en general y respetando el entorno natural. Los trabajos ya han arrancado y se prevé que estén finalizados para fin de año.

Enplegu alorrean, ekintzaileentzako gune berri bat jarriko duzue abian Goiekirekin. Hirigoien auzoan.

Bai, enplegua eta ekintzailetza sustatzea gure lehentasunetako bat izan da eta izango da, eta horren adibide garbia da Goiekirekin elkarlanean Hirigoien 58ko erakinean abiatuko dugun ekintzaileentzako zerbitzu-gune berria. Obrak amaitzen ari gara jada.

Espazio hau enpresa berrien jaiotza errazteko sortua izango da, tokiko talentua bultzatu eta proiektu berritzaileei lehen urratsak emateko aukera eta laguntza eskainiz. Azpiegitura egokiak, aholkularitza eta sareko lanerako aukerak eskainiko ditu, inguruko ekonomia dinamizatzeke tresna izango delarik.

Ekintzaileen ideiak eta proiektuak hazteko gune izango da, eta ekosistema produktibo eta berritzaileago bate-

rako bultzada izango du. Laster emango ditugu xehetasun gehiago.

¿El nuevo PGOU, en marcha?

La redacción del nuevo Plan General de Ordenación Urbana ya está en marcha. Se trata de un proceso complejo pero clave para definir el modelo de crecimiento y desarrollo urbano de Lazkao en los próximos años.

Nuestro objetivo es contar con un PGOU actualizado y, sobre todo, participativo y consensuado, que responda a las necesidades reales del municipio en términos de vivienda, movilidad, sostenibilidad y espacios públicos. El equipo redactor del Plan ha realizado en esta primera fase un diagnóstico mediante un análisis exhaustivo del estado actual del municipio. Este diagnóstico que será compartido con los lazkaotarras que así lo deseen a través del Programa de Participación Ciudadana, permite identificar los problemas y potencialidades para establecer las líneas estratégicas y los objetivos que guiarán el desarrollo del plan futuro adaptado a las necesidades de Lazkao.

San Jose auzoan, igogailu publikoa eraikiko da ere.

2026ko inbertsioetako bat izango da. Irisgarritasunaren arazoa larria da San Jose auzoko hainbat bloke edo etxe multzoetan. San Jose auzoko bizilagunek, bereziki adinekoek eta mugikortasun murriztua dutenek, egunero dituzten zailtasunak arindu eta beren bizi-kalitatea hobetze aldera, ezinbestekoa ikusten dugu igogailu baten beharra. Irisgarritasuna eskubide bat da, eta norabide horretan lan egingo dugu.

Quiéren encauzar el edificio ‘Champiñón’ para iniciativas culturales, iniciativas comunitarias con la ciudadanía.

Efectivamente. El edificio de la calle Hirigoien conocido como ‘Champiñón’ es una oportunidad para dar respuesta a una demanda creciente. La idea es transformar el edificio en un espacio polivalente, abierto a iniciativas culturales, sociales y comunitarias, impulsadas desde y para la ciudadanía. Queremos que sea un lugar vivo, flexible, y al servicio de las personas.

Queremos definir el futuro uso del espacio de forma participativa, junto con las y los vecinos, asociaciones y agentes culturales. El objetivo es que el edificio se convierta en un referente de dinamismo cultural y convivencia, adaptado a las necesidades reales del pueblo.

Legealdiak bi urte bete ditu, 6 urtez alkate. Nola aurkitzen zara?

Motibatuta eta eskertuta. Herritarren konfiantza eta babesa sentitzea ez da makala, eta ardura handiz bizi dut. Talde sendo batekin ari naiz lanean, eta bide erdia eginda dugun honetan, erronka asko ditugu oraindik aurretik.

Lan egiteko gogorik ez zait falta, eta ilusioa ere ez. Lazkaok merezi du eta gure hoberena ematen jarraituko dugu.

Zein dira legealdi amaiera bitarteko erronkak?

Legealdi amaierako erronka nagusiak guztiona eta guztiontzat den Lazkao hobe bat eraikitzea bideratuta daude: anbulategi berria, Lazkaomendiko oinezko bidearen proiektua abian jartzea eta etxebizitza berriak eraikitzea. Bestalde, HAPOaren idazketa aurreratzea, Enpaundi eta Areso-Antzaldeko eremuak euri jasa handietatik babestea, Kanpandegiko Industrialde berrira enpresak bideratzea eta “Txanpiñoia” eraikina kultur eta herri ekimenetarako egokitzea. Guztiak Lazkao hizki handiz eta harro adierazteko apustu sendoa dira.



“Lan egiteko gogorik ez zait falta, eta ilusioa ere ez. Lazkaok merezi du eta gure hoberena ematen jarraituko dugu”.

DATORREN LAZKAO



Anbulategi berria / Nuevo ambulatorio



Meandroko gunearen egokitzapena / Acondicionamiento del meandro



Hirigoien 56-58 lokalen egokitzapena ekintzailetza proiektuak garatzeko / Adecuación de los locales 56-58 de hirigoien para el desarrollo de proyectos de emprendimiento



HAPOaren idazketa / Redacción del PGOU



Lazkao mendiko oinezkoentzako bidea / Camino peatonal de Lazkaoendi



San Jose auzoan 6 etxebizitzari zerbitzua emango dien igogailu publikoa / Ascensor público que dará servicio a 6 viviendas en el barrio de San José



Mikelar 4-5 urbanizazioa / Urbanización Mikelar 4-5



Areso kaleko urbanizazioa / Urbanización de la calle Areso



Kanpandegiko Industrialdea: jarduera ekonomikoa eta enpresak ezartzea / Polígono Industrial Kanpandegi: actividad económica e implantación de empresas.



'Txanpiñoia' eraikina kultur ekimenentzako, ekimen komunitarioak / Edificio 'Champiñón' para iniciativas culturales, iniciativas comunitarias



Areso parkea estaltzea / Cubrir el parque Areso



Iturrialdeko urbanizazioa / Urbanización de Iturrialde



Haur parkeak egokitu / Renovar parques infantiles